



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría  
idazkaritza@astigarraga.eus

## ARTXIBOKO ETA LIBURUTEGIKO ARDURADUNAREN LANPOSTUA BETETZEKO LEHIAKETA-OPOSIZIO

### 5. ARIKETA (Trebetasun edota nortasun probak)

Hautaketa-prozesuko 5. ariketari (Trebetasun edota nortasun probari) dagokionez, epaimahai kalifikatzaileak erabaki du:

**Lehena.- 5. probatzat elkarrizketa bakarrik egitea**, eta hori honako egun eta leku honetan egitea:

**Eguna:** 2022-06-29

**Ordua:** 11:00etan

**Lekua:** Astigarragako udala. (Foru plaza 13).

**Bigarrena.-** Proba horretan konpetentzi hauek baloratzea:

- 1) Etengabeko irakaskuntza eta ezagutza teknikoak.
- 2) Autonomia eta ebaluazio eta analisi gaitasuna (pentsamendu analitikoa).
- 3) Produktibitatea eta proaktibitatea.
- 4) Lankidetzeta eta errekerimenduei erantzutea.
- 5) Pertseberantzia eta lan estresarekiko tolerantzia.
- 6) Kalitatea eta etengabeko hobekuntza.
- 7) Komunikazio eraginkorra eta enpatia.
- 8) Antolaketaren sena eta ezarritako ordenarekiko konpromisoa.

Astigarragan, 2022ko ekainaren 20an.

Iñigo Saralegi Arzallus  
Epaimahaiko idazkaria

OHARRA.- Deialdi hau egiteko orduan azken ariketaren emaitzak behin behingoz bakarrik onartu direnez, jakinarazten da **proba egiteko eskubidea** dutela (hau da, elkarrizketa egin dezaketela) aurreko proba gainditu dutenek, bai eta gainditu ez dutenak bi baldintza hauek betetzen badute: alegazio epe barruan alegazio-idatzia aurkeztu izana eta proba eguna baino lehenago ez bada alegazioaren erantzuna jakinarazi. Dena den, azken horien kasuan, ariketa honen emaitza onartu aurretik 3. probarenak behin betikoz onartzen badira, ariketa ez zaie zuzenduko.